

Itxaro Borda

## Muga (a)uherrak

G

aurkoan, ez da ongi ikusten ezkerrekoa eta demagun berrogeigarren urteburua ospatuko zaion 1968ko maiatzaren miresleotarik izatea; proiektu, xede, jendetasun, pentsamendu arrazional gabekeria leporatzen zaie *kapitalaren* aurkako den mendreneko zalantza erakusten duten apurrei. Erreformak, zailak noski, populazioak oinarritzko langile zein hiritar eskubidez biluzteko joera horrela eufemizatzen dute, erreformak beraz, eramateko kuraia eta lotsa ukatzen diete gainera: abereekin aberezaleki, hau da frankoki mintzatzekoa da, zinezko *ruptura* eraginez, ruptura soziala batez ere, urratzen doan lezean, irabazleen ustezko garaipen zein lorpen merezituaren itzala bermatzen dela. Nago ez ote dituzten jende arruntak, laborariak ardiak edo behiak erreformatzen dituzten moduan tratatzen, zabarregiak, zakarregiak, zaharregiak direnez, ez baitira errentagarriak.

Mugak uhertu arau, auhertzen dizkigute. *Demolition men* hauek objektiboki eta kasik zientifikoki justifikatzen dizkigute beraien ekintzak. Ezagutzen ditugu -piska bat, izaera subjektibo soilekoak garen arren- molde horretan, historia hurbilean zehar, garaturiko ideologia hilkorren ondorioak: kolonialismoak, beltzak zientziaren izenean apalesten zituen, psikologia maskulinistak homosexualak gaixo lanjeros gisa aurkezten, emazteek arimarik bazutenez eztabaidatzen zuten bitartean eta nazionalismo europarrak juduak, antropometria erabiliz, Auschwitzera akuilatzen. Euskararen suntsiketa halaber mediku aholkuak aitzinatuz planifikatu zela oroitu gaitezela: haurrek alabaina handikapa linguistikorik ez zuten pairatu behar. Eta Frantzian jagoitik immigrazioa ADN testekin kontrolatuko da: ADN baina gai zientifikorik badea? Halatan, objektibotasunak aburu neoliberalak gordetzen dituela baimentzen ahal dugu, gure departamenduak ezkerredera plegatzen zuela, boz bakar batez eskuinaren men geratu delarik. Alain Iriartek proiektu finakoak hobesten ditu, eta proiektu finko bezain segurak egun eskuinean dira argiki, beraz gizonak UMPren alde bozkatu du. Garai ilun hauetako logika bazter ezina.



GAIZKA IROZ

Jendeak, euskaldunak barne, ez daki gehiago nola dantza, nola pentsa, pentsatzea zilegi zaionez ere. Uste izan du sindikatuak, elkarte jaidurak, feminismoaren etekinak, grebak, oporrak, seguritate soziala edo aberastasunen banaketa hein bat demokratikoa eredugarriak zirela, baina ez, telebistak errepikatzen diete ordu oroz, ez eta ez, arkaismo soziokultural eta kontserbatismo nazkagarriaren elementuak baino ez ziren: proiektuak dira nagusi. Deus ez da neoliberalismoaren tsunamiari oldartzeko gai, gure ezkertiar sineste-sail ahalkegarria are gutxiago.

Anartean botereak bere goberna-xendrak indartzen ditu: Sarkozyk astea militarren erdian eta gerla odoltsuak goraiartzten pasatu du, hiritarrei *kontuz, ez mugi bestela...* erran nahiko balie bezala. Ezpata eta kalitza ohoratzen ditu, errepublikaren zurtasuna, batasuna, europar zein heterozentrisismo hertsia, komunitarismoak bekatu mortalak direla aldarrikatuz, terrorismo mota guztien habiak direlako iritzi-egile

Jendeak, euskaldunak barne, ez daki gehiago nola dantza, nola pentsa, pentsatzea zilegi zaionez ere. Uste izan du sindikatuak, elkarte jaidurak, feminismoaren etekinak, grebak, oporrak, seguritate soziala edo aberastasunen banaketa hein bat demokratikoa eredugarriak zirela, baina ez...

eta gogoetalarien arabera. Eta ez abia *blogetan* Sarkozyz duzun ikusmoldearen agertzera, sarea arakatuko duen arduradun bat izendatu berri duelako. Libertate murrizketak, intolerantziak edo egitura politikoen bizi-hazteak eskuineko kontserbatismoa indartzen dute, diskurtso ofiziala alderantzizkoa delarik, lehendakaria Carli-taren eskutik *people* izparringien orrialdeetan nagitzen doala.

Errautsa begietara. Itsu nahi gaituzte. ■